



ZIZUR NAGUSIA  
**KULTUR PROGRAMA**  
MARTXOA-APIRILA 2025



Zizur Nagusiko Udala  
Ayuntamiento de Zizur Mayor



KULTURA, Zizur Nagusia  
CULTURA, Zizur Mayor

Jarraiguzu ZizurArten:  
[www.zizurmajorcultura.es/eu](http://www.zizurmajorcultura.es/eu)



# EGUTEGIA



ZINEMA



ANTZERKIA



HAUR  
ZINEMA



MUSIKA

## MARTXOA

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

## APIRILA

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

## EGUNA

- 06 ZINE-FORUMA "Las buenas compañías" SILVIA MUNT
- 07 ANTZERKIA "Una mera curiosidad" PRODUCCIONES MAESTRAS
- 09 HAUR ZINEMA "Del revés 2" KELSEY MANN
- 14 ANTZERKIA "Miñan" ARTEDRAMA
- 21 ANTZERKIA "Puños de harina" EL AEDO TEATRO
- 22 MUSIKA "Kbles Show Case" ELSA AUTOR
- 28 MUSIKA ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA BANDA ETA ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK
- 29 ANTZERKIA "Misoginia & Spoilers" INEXTREMIS TEATRO

## EGUNA

- 03 ZINE-FORUMA "Mujeres del siglo XX" MIKE MILLS
- 04/05 ANTZERKIA "El viaje" ZIZUR NAGUSIKO ANTZERKI TAILERRA
- 06 HAUR ZINEMA "Mavka. Basoaren zaindaria" ALEKSANDRA RUBAN, OLEH MALAMUZH
- 11 ANTZERKIA "Beren izenez" LA PIEL KONPAINIA
- 13 MUSIKA "Erromantizismo hutsa" CAMERATA NAVARRA
- 26 MUSIKA "Jazz & Techno" ZUGARDI BIG BAND

AHAL DUZUN GUZTIETAN,  
EROSI ZURE SARRERAK  
INTERNET BIDEZ



ESKATU AURIKULARRA  
EDO BEGIZTA MAGNETIKOA  
ATEZAINDEGIAN

### Antolatzaileak:



### Diru-laguntzaileak:



L.G. NA-1369-2012. Doako zabalpena.



## BILATU PROMOZIOAK!



**13€** **BONUA BIKOA**

"Una mera curiosidad"  
PRODUCCIONES MAESTRAS +

"Puños de harina"  
EL AEDO TEATRO  
2025/03/21

**18€** **BONUA HIRUKOA**

"Una mera curiosidad"  
PRODUCCIONES MAESTRAS  
2025/03/07

+ "Puños de harina"  
EL AEDO TEATRO  
2025/03/21

+ "Misoginia & Spoilers"  
INEXTREMIS TEATRO  
2025/03/29

**9€** **BONUA EUSKARAZ**

"Miñan"  
ARTEDRAMA  
2025/03/14

+ "Beren izenez"  
LA PIEL KONPAINIA  
2025/04/11



## PREZIOAK MURRIZTU DITUGU!

### GAZTE ETA IKASLE

#### TXARTELA (12 eta 30 urte

bitartekoentzat): 4 euroko edo

4 eurotik gorako sarreretan

%50eko murrizketa. Ez da

aplikatuko haur ikuskizunetan.

**Betebeharrak:** NANA eta txartela eguneraturik aurkeztea.

**LANGABETUAK:** Doako sarrera bat haur zinema emanaldietara haurra laguntzera joaten den helduarentzat.

**Betebeharrak:** NANA eta enplegua eskatzeko txartel eguneratua aurkeztea.

### ALDEZ AURREKO SALMENTA

**Otsailaren 25eko (asteartea) 09:00etatik aurrera.**

#### 1. TXARTELDEGIA

- Astelehenetik ostiralera

09:00 - 21:00

- Larunbatetan

10:00 - 14:00

17:00 - 21:00

- Igande eta jaiegunetan

12:00 - 14:00

- Ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago.

#### 2. INTERNET

[www.zizurmajorcultura.es/eu](http://www.zizurmajorcultura.es/eu)

Egiaztatu zure erosketa eta ez ahaztu sarrera.

**Gogoan izan, kosturik gabe**



### OINARRIZKO ARAUAK

**Puntueltasuna:** Behin ikuskizuna hasita, inork ez du sartzerik izanen aretoan.

#### Seinale akustikoak:

Deskonektatu beharko dira.

#### Grabazioak eta argazkiak:

Debekatuak daude.

**Janaria eta edaria:** Debekatuak daude.

**Dirua itzultzea:** Ikuskizuna bertan behera uzten denean soilik.

**Haur ikuskizunak:** Adin gomendatura doitzea aholkatzen da.

- 3 urtetik behekoek: Ikuskizuna adin horretarako denean baizik ez dute bertaratzerik izanen.

- 3tik 7 urtera: heldu batek lagunduta joan beharko dute.

Osteguna

06



ZINE-FORUMA



## Las buenas compañías

SILVIA MUNT

19:00  
2€  
91 min

Antolatzaileak:



COMISIÓN DE IGUALDAD  
AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR  
ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN  
BERDINTASUNERAKO BATZORDEA



KULTURA, Zizur Nagusia  
CULTURA, Zizur Mayor



1976ko uda. Beak 16 urte ditu eta herrialde osoko aldateta-giroarekin egin du bat; emakume talde batekin aritzen da lankidetzan kausa feminista ikusarazteko eta abortatzeko eskubidearen alde borrokatzeko. Odolean sentitzen duen errebeldia ustekabeko sentimendu batekin nahastu eta bizitza hankaz gora jarriko zaio. Hilabete horietan, adiskidantza

mingarrian sartu beharko du Beak.

“Las buenas compañías” Silvia Munt aktore eta dokumental-zuzendariaren bigarren fikzionala da. Horrela, hainbat emakumeren bizipenak eta barne-barneko istorioak oinarri harturik, filma mugimendu feminista hasi berriaren eta emakumearen eskubideen defentsaren erretratu da,

Basauriko Hamaikak deritzenen askatasunaren aldeko borroka ardatz harturik. Langile-klaseko emakumeak ziren, abortatzeagatik auziperatuak. Filmak kausa feminista onartzen ez zuen gizartearen garai hura ekarri digu gogora, gizartea lo baitzegoen edo artean ere

frankismoko uste, jarrera eta portaerei itsatsia. Ausartendako bakarrik zen garai baten erretratu da.

**Ondotik, solasaldia María Castejón Leorza historialari eta zinema-kritikariarekin.**



berezia izanen du Mirenekin: bera baino zaharxeagoa den familia oneko neska batekin. Ez du susmatzen neska enigmatiko horrek –Mirenek– sekretu bat duela gordeta, eta sekretu horrek bultzatuta, helduen mundu

Ostirala

## 07



### ANTZERKIA

## Una mera curiosidad

PRODUCCIONES MAESTRAS

20:00  
6€  
70 min



Antolatzaileak:



COMISIÓN DE IGUALDAD  
AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR  
ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN  
BERDINTASUNERAKO BATZORDEA



KIDURU, Zizur Nagusia  
KULTURA, Zizur Mayor



Artemisia Gentileschik, italiar pintore barrokoak, bere esparrutik atera eta bi dimentsioak alde batera uztea erabaki du, zerbait kontatzera etortzeko. Ez du oso argi zergatia, baina ezin zuen zirkinik egin gabe gelditu garaia bilakaera ikusirik. Agian guk lagundu diezaiokegu barnetik azpilanean ari zaion kezka hori moldatzen.... Komedia hau arteaz baliatzen da,

gaur egungo gaiak eta giza gaiak jorratzeko. Artemisiaren eskutik, ibilbide dibertigarri eta zirraragarria egingen dugu bere bizitza eta obran zehar, benetan kezkarri zaion oraina ahaztu gabe. Historiak isiltasunera baztertuta, Artemisiak bere protagonismoa aldarrikatzen du, eta umorearen nahiz fantasiaren bidetik ari da horretan.

Igandea

## 09




### HAUR ZINEMA

Gaztelaniaz

## Del revés 2

KELSEY MANN

18:00  
3€  
88 min



Sekuela honetan, Riley nerabezaroan sartzearekin batera, bere buruko kuarter nagusiari bat-bateko berrikuntza gertatu zaio, guztiz ustekabekoa den gauza bati lekua utzita, nerabezaroak berezkoa duen gauza bati, emozio berriak iritsi baitzaizkio, hau da, antsietatea, bekaizkeria, lotsa eta asperdura.

Ostirala

# 14



ANTZERKIA

Euskaraz


## Miñan

ARTEDRAMA

20:00

6€

90 min



Ibrahima Balde Ginean jaio zen. Han kamioi-gidari izateko prestaketan zebilen; baina, egun batean, amaren deiak etxea uztera behartu zuen, anaia txikiaren bila Europara joateko. Basamortua zeharkatu zuen, eta polizia, bahitzaile, mugalari eta abarrekin gurutzatu zen zeharkaldian. Afrikatik Europarako ibilbide luzean minak, egarriak eta goseak

sorturiko sufrimendua ezagutu zuen.

Miñan (anaiatxoa) Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da, Amets Arzallusek lehen pertsona kontatua eta Artedramak antzerkera egokitua.



Ostirala

# 21



ANTZERKIA

## Puños de harina

EL AEDO TEATRO

20:00  
12€  
70 min



**inaem**  
INSTITUTO NACIONAL DE ARTES ESCENICAS

**PLATE**

PROGRAMA ESTATAL  
DE ARTES ESCENICAS

“Puños de harina” lanak arrazakeriari, homofobiari, indarkeriari eta maskulinitateari buruzko gogoeta dakarkigu. Zer da indarkeria? Zerk bereizten ditu gizon batzuk besteengandik? Zer esan nahi du gizon izateak? Bakarrizketak bi istorio dakartza eta, aldi berean, boxeo munduari eta ijito jendearen kulturari lotutako bi pertsona ezagutuko ditugu: batetik, Hitlerrek nazien Alemanian hil zuen Rukeli boxeolari ijito alemaniarraren benetako istorioa eta, bestetik, Saul, 80ko hamarkadako landa-

eremuko Espainian bere nortasunaren bila eta familiari aurre egiten ari den ijito gaztea. Lanaren bidez jakinen dugu Rukeli, Saul eta beste ijito batzuk borrokatu, eutsi, hil eta Holokaustotik nahiz gizartetik bizirik atera zirela, baina era berean, bestelako istorioa dakarkigu, hots, gizon batzuk nola ahalegintzen diren sartzen “benetako gizon izatea” kontzeptu idealean, beren arraza, kultura edo sexu-joeragatik baztertzen dituzten testuinguru batean.

Larunbata

## 22



MUSIKA

### Kbless Show Case

ELSA AUTOR

20:00

6€



Elsa Autor nafar artistak bi ataleko ikuskizuna ekarriko digu, arlo organikoa eta digitala uztartuta. Haren ahotsa eta gitarra, beste gitarra batek, bateriak eta dantza-artista batek lagundurik arituko dira. Emaidza soinu-bidaia bat da, dela barne-barneko poesia, dela autore-kantua, dela soinu elektronikoen musika sutua. Inflexio-puntuaren ondotik, artistaren dimentsio berri bat zabalduko da entzuleen aurrean. Musika, beraz, erritmoz eta beat digitalez betetako jai bat bihurtuko da. Ikuskizunean agerian geldituko dira Kbless-en musika moldagarritasuna eta talentua, itxuraz ezberdinak diren baina grinak eta sormenak sakon lotuta dauden bi soinu-mundu uztarturik.

Ostirala

## 28



MUSIKA

ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA BANDA  
ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEKIN

20:00

2€





Larunbata

# 29



## ANTZERKIA



### Misoginia & Spoilers

INEXTREMIS TEATRO

20:00

6€

90 min



Henrik Ibsen idazlearen "Hedda Gabler" lanaren bertsio libre hau originalaren izaera klasikotik urruntzen da gaur egungo garaira bere gordintasun osoan etortzeko. Eguneratze horrek ez du inola ere galarazi idazle norvegiarraren lan guztietan ageri den giroa: bere emakumezko pertsonaiak harreman itogarrietan

giltzapeturik bizi dira, gizonen agindupean, gizonen kontrolpean, gizonen boterearen xedearan adierazpenik bortitzena emakumearen suntsiketa baita. Hori bai, pertsonaiak estu hartzen dituzten gatazkak gaur egungoak dira, leku berera eramaten gaituzten arren. Istorio honetan ugaria da zitalkeria, ugariak estrategia ezkutuak, eta ospetsu izan nahia. Eta zenbat eta gehiago barneratu hartan, hainbat eta lausoagoa da pertsonaien eta interpreteen arteko marra. Misoginia & Spoilers komedia gogorra da emakumeen gaineko botere-abusu betierekoaren gainean.

harrapaturik bizi dira. Emakumeak, izan ere, barne hierarkia maltzurretan

Ibsenengandik abiatzen da, baina gure egunerokotasunaren errealitatean egiten du eztanda.



## Mujeres del siglo XX

MIKE MILLS

19:00  
2€  
118 min

Antolatzailerak:



COMISIÓN DE IGUALDAD  
AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR  
ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN  
BERDINTASUNERAKO BATZORDEA



ZUZUR, Zuzur Nagusia  
ZUZURIA, Zuzur Mayor



Santa Barbara, 1979. Dorothea Fields emakume ezkongabe sutua da eta Jamie 15 urteko semearen heziketa da bere kezka nagusia, matxinada eta kultur aldaketa puri-purian dauden garaian. Semea kontrolaezina egiten zaionez, Dorotheak bi emakume gazteri eskatuko die

laguntza: batetik, Fieldstarren etxean gonbidaturik bizi den Abbie espiritu libreko punk artista gazteari eta, bestetik, Julie auzokide buruargi eta probokatzailerari.

**Ondotik, solasaldia María Castejón Leorza historialari eta zinema-kritikariarekin.**

Ostirala eta Larunbata

**4 eta 5**



ANTZERKIA

## El viaje

ZIZUR NAGUSIKO ANTZERKI TAILERRA

20:00  
4€  
60 min



*Ez da bidaiatzen iristeagatik, joateagatik baizik. Helmuga aitzakia besterik ez da, gero itzultzera garamatzen ibilbideari egiten zaion gonbidapena. Eduardo Galeano.*

“El viaje de la vida” lanean, zeharkaldiari –bizitzari– egindako kantu sakonean murgilduko gara. Agertokia maletaz beteko da. Maleta bidean zehar metatutako gure bizipen eta ikaspenen ikurra da. Eta, literatur testuen eta kontakizun pertsonalen bidez, ohartuko gara bidaiatzearen egiazko xedea dela ibilbideaz eta bidean sortzen diren harremanez gozatzea, eta izaeraz berriturik itzultzearen aukera hori izatea.

**ZUZENDARITZA:** Eva Azpilikueta eta Montse Zabalza **INTERPRETEAK:** Maite García, Jose Pérez, Isabel de Carlos, Juan Pedro Ibarra, Santiago Echeverría, Mónica Hidalgo, Bienvenido León, Txon Aldama, Maika Barrero, David Corbacho, Leyre Etayo, Edurne Lazkano, Cristina Nagore, Alicia Narvaiz eta Maite Valencia.

## APIRILA

Igandea

6



HAUR ZINEMA

Euskaraz

### Mavka. Basoaren zaindaria

ALEKSANDRA RUBAN, OLEH MALAMUZH

18:00

3€

90 min



Mavka izaki fantastikoa da eta hautu ezinezkoari egin beharko dio aurre; izan ere, Lucas gizakiaz maiteminduko da, baina aldi berean, baso sorginduaren zaindari lanak bete beharko ditu.

Arau guztien kontra, Mavka eta Lucas maitasun-istorio batean murgildu dira, Erresuma bera arriskuan jarrita. Salbatuko ote du Mavkak basoa?

Ostirala

11



ANTZERKIA

Euskaraz

### Beren izenez

LA PIEL KONPAINIA

20:00

6€

30 min



Bikote bat, Jaione eta Xabier, beilatokiko gela batean daude. Jaioneren aita hil berri da eta ez du dirurik izan hileta duina ordaintzeko: hilkutxa kartoizkoa da, ez dago lorerik, hildakoak ez du makillajerik...



Familia iristeko zorian dago, eta Jaione lotsatua dago. Xabi, ordea, lasai dabil. Haren ustez, heriotzaren merkantilizazioaren kontra arrazoitzea aski izanen da hiletan dirurik gastatu ez izana justifikatzeko. Bat-batean, gauza bat bururatu zaio Jaioneri. Aitonaren izena emanen dio

iristear dagoen haurrari, eta horrela errua kenduko du buru gainetik. Xabik, ordea, ez du halakorik nahi, aitonaren izena berezia baita eta ez du nahi haurrak bitzta osoan karga hori izaterik.

# APIRILA

Igandea

13



MUSIKA

## Erromantizismo hutsa

CAMERATA NAVARRA

12:30  
6€



Camerata Navarrak, Gian Luca Mangiarottik zuzendua eta Zizur Nagusian egindako Ganbera Orkestrako 2025eko Tailerrean parte hartutako jendearekin elkarlanean, garai erromantikoko bi musikalnik adierazgarrietakoak eskainiko ditu: Mendelssohnen "Hebridak" eta Schuberten sinfonia "Bukatugabea".

Larunbata

26



MUSIKA

## Jazz & Techno

ZUGARDI BIG BAND

20:00  
10€



Fusionatu daitezke zuzenean jazz musika eta musika elektronikoa? Zugardi Big Bandek eta Javier Suescun eta Aitor Burgui musika ekoizle eta nafar artistek horixe frogatuko digute programa eklektiko honetan, jazz, swinga eta techno musika ederki uztarturik.